

Hilarrien hizkuntza ulertu beharrez



Hilarrien Interpretazio Zentroa zabaldu berri du Lauburu elkarteak Larzabalen. 80 bat hilarriez gain, horietan zizelkatuak diren galderak ikus daitezke.

XAN AIRE
Larzabale

Hotz da Larzabalen (Baxenabarre). Ez beti. Baina egun, zerua ilun dabil arratsalde betean. Elizaren ondoan, etxe bat. Paretan, Iratzederren olerki bat. Hilarrien Interpretazio Zentroa. Atea itxita dago. Eliza ere bai. Auzoko ostatuan jakinen dute noiz zabal-tzen duten etxea. Goxo da barnean. Ostalerraren kafe beroak plazer egiten du. Larzabaleko ostatu eta komertzioetan aurkitzen omen da hilarrien zentroko pasatxartela. Urririk. Baina kafe bat hartzeko astia hartzen da, lekuko jendearekin bi hitz trukatzuz.

Etxearen atea zabaldu da. Aurtean, harriak. Borobilak dira gehienak, gurutzea bezain zorrotzak besteak, laukia arruntak batzuk. Denak lurtean landatuak dira, denak alderdi berdinari buruz itzuliak. Iratzederren olerkiak dioenez bezala, «lurretik goiz-argira xutik», hain segur. Ekialdera begira. Teilatu bat dute gainean. Borobila guzietan eskulturak daude. Loreak, gurutzeak, zurrunbiloak, izarak. Datak, 1618 batean. Izenak, *Jesus Mari*. Eta beste forma bitxi batzuk... Zer ote da hori, suge baten forma, barra batzuen gibelean? Bihotz batek inguraturik? Ez ote da emaztearen bularra? Eta harriek sailkapen bat segitzen ote dute? Ea, parkearen puntan dagoen seinaleak laguntzen duen.

Ez. Hilarri horien jatorria azaltzen du. Lau hizkuntzetan. Euskaraz, frantsesez, gaztelaz eta ingelesez. 80 bat hilarri daude Larzabaleko zentro honetan. Marcel Etxandi erretorak bilduak 1950 hamarkadan, Bellocq Biarnoko herriko frailetegia jartzeko, oiha batean. Garaian, Euskal Herriko hilarri borobilak lapurtzen hasi ziren, edo harginek haus-ten zituzten harri gehiago izateko. Etxandik, berriz, euskal ondarearen altxorak bezala ikusten zituen harriak. Erakusketa baten modura antolatu zuen hilarrien parkea erretorak, harat hurbiltzen ziren jendeei bisitak eginaraziz. Baina poliki-poliki, denborak eta eguraldiak urratu eta hondatu

Hilarri gehienak borobilak dira, baina badaude gurutze formakoak ere. GAZTAK IROZ

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)